


ARRAZAKERIA BIZKAIAN

2021-X-14



Ibai Barrenechea, Darío Rubio eta Eneko Zabala

Sarrera:

Txosten honen zehar, pertsona askok duten galderari erantzuna ematen saiatuko gara, zein iritzi du jendeak arraza bakoitzarekiko? Askotan gure buruarekin hitz egiten konturatzen gara zenbait arraza konfiantza gehiago sortzen digutela eta beste batzuk zergatia jakin barik deserotasuna sortzen digutela. Gure helburua zein arraza jasaten duen arrazakeri gehiago, zein diren txartoen ikusita dauden arrazak jakitea da.

Arraza desberdineko pertsona askok jasaten dute arrazismo mota hau egunero, errepidearen beste aldera mugitzean norbaitek haiekin ez egoteko, edota nahi barik norbait ikaratzean bakarrik haien azal koloreagatik. Informazio honen bidez, erru berdinetan ez erortzen lagunduko dizuegu, eta ere zuek ulertu ahal izateko zer dela eta duzuen iritzi hori arrazei buruz, ikusteko azken finean bakarrik direla gizarteak ezarritako estereotipoak, eta ez duzuela kontuan hartu behar. Ikerketaren amaieran, hausnarketa orokor bat egingo dugu, guztiok ulertzeko notiziak eta pertsonak dioten guztia ez dela beti guztiz egia, eta askotan ume baten begiz begiratu behar dugula mundua, aurreiritzirik gabe, horrela gure kabuz lortzeko pertsoneri buruzko ditugun iritziak, gure bizitza da eta azken finean, eta guk ditugun iritziak gureak izan behar dira, bestela lehen esandako erruetan erortzen gara besteon esperientzei garrantzi gehiago ematean gure esperientzei baino, iritzi desegokiak sortuz.

Hipotesiak:

Hona hemen gure hipotesiak, adin tarte bakoitza zein arrazarekiko duen deserotasun gehiago:

- a. 10 urte beherakoentzat, deserotasun gehien eragiten duen arraza beltzaranak dira. Haientzat ezberdinak direlako, azal kolore ezberdina, metabolismo ezberdina etab.
- b. 10-20 urte bitartekoentzat, etnia ijito eta errumaniarrak dira. Telebista ikusten hasten dute eta berrietan askotan familia ijitoen arteko

konfliktuak agertzen direnez, gazteen usteetan ijitoak arazo asko sortzen dituzte.

- c. 20-60 urte bitartekoeentzat, politikarekiko interes gehiago izaten hastean, askok musulmanekiko harreman txarrak izaten dute, gure herrialdera etortzen diren gehienak direlako, askok ilegalak diren metodoekin sartzten herrialdera.
- d. Eta azkenengoz talde txikiagoa baita, 60 urtetik gorako pertsonak askotan beltzaranekiko arrazakeria aurkezten dute, gazteak zirenean beltzaranak oso txarto ikusita zeudelako, normala zen arrazakeria garai horretan.

Marko teorikoa:

Arrazakeria ideologia bat da, non, arraza bata bestea diskriminatzen duen bere arraza boteretsua dela demostratzeko edo hori uste duelako. Honekin lortzen den bakarra amorrutako delituak sorraraztea da. Arraza guztiek dute ideologia hau, eta denek nahi dute arraza boteretsuena izan eta horretarako beste arrazak erasotzen dituzte haiena "indartsuena" bihurtzen. Arrazakeri hitza 1884-1885eko Berlingo Konferentzian erabili zen lehenengo aldiz. Arrazakeri mota ezberdinak daude eta horrela daude sailkatuta:

- Erlijio arrazakeria
- Kolonia garaiko arrazakeria
- XIX. mendeko arrazakeria
- Arrazakeri biologiko seudozientifikoa
- Arrazakeri kulturala

Arrazakeria jasotzen dutenen %84a etorkinak dira. Etorkin bat, beste herrialde batetik ihes egin duela guda edo politika ideologia arazoengaitik da. Bi mota daude:

- Etorkin legalak
 - Legez etorri dira eta "paperak" dituzte lan egiteko eta erresidentzia bat izateko.
- Etorkin ilegalak
 - Aurrekoa ez dute eta normalean indarkeriaz gainditzen dute muga.

Arabiarrak eta beltzaranak (munduko leku askoetan dauden arren, arraza beltza Afrika Subsahariana zonaldetik datozen arraza da, baina munduko zenbait lekuetan beltzarana hitza beste eratan erabiltzen da, ohiturei ere egiten erreferentzia. Baina horretaz aparte gure gizartean gaur egun beltzaranak, hau da, pigmentazio beltza duten pertsonak Afrikan dute haien jatorri leku bezala) dira Euskadin xenofobia delito gehiago jasaten duten arrazak, delitoen % 50a baino gehiago jasatez, arabiarrak izatez gehienak. Hirugarren taldea etnia ijitoa da, gehien jasaten duten hirugarren taldea.

Datuekin hasi baino lehen, amorru delittoa zer den azaldu behar dugu. Edozein delitu penala, pertsona baten kontra edota propietate baten kontra, non delituaren biktima, edo delituaren objektiboa aukeratua izan dela kriminalak dion iritzia, amorrua, sinpatia, maitasuna edota beste emozioengatik, ere izan daiteke biktimarekiko pertsona talde batek duen iritziagatik, eta alderantziz, kriminalak pertsona talde batekiko duen iritziagatik, arrazakerian gertatzen den bezala.

2017an, guztira amorru delitoen 129 denuntzia egon ziren, eta 71 xenofobia edo arrazismo delitook izan ziren, delito guztien erdia baino gehiago. Delito honen gehienak ere Bizkaian eman ziren, Bizkaiak duelako Euskadiko populaziorik handiena.


Pasadan 2020an amorru delito hauek gorakada itzela egin zuten, %142aren gorakada, 2019an egon zen beherakadako 105 kasuekiko, urte honetan 241 delito egonez. Baina kasu honetan arrazismo delitook 117 izan ziren, erdia baino pixka bat gutxiago zehazki ehuneko 48,5-a, beraz arrazismo delitook behera egin dutela ondorioztatu dezakegu, egunero arrazismoaren kontrako ateratzen diren kanpaina berriei esker.

Baina oraindik, bigarren grafikoari erreparatuz ikusi dezakegu arrazismoa dela agresio eta krimen gehien arrazoa, besteak baino askoz gehiago.

Orain, datu hauek interpretatzeko eta azaltzeko erabili ditugun grafikoak azalduko ditugu, guztiak webgrafian dagoen web orrietatik aterata, gehienak egunkarietakoak:


Denuncias por delitos de odio

En el año 2017, se registraron 129 denuncias




Grafiko honetan Euskadin egon ziren amorru delitoen banaketa ikus dezakegu, Bizkaia izatez foko handiena, eta delito hauen artean 71 arrazismo delito bezala klasifikatu zirela, erdia baino gehiago arabiarrei eta beltzaranei izan direnez gutxi gorabahera 40 izan direla haien kontra ondorioztatu dezakegu.

TIPOLOGÍAS DELICTIVAS POR COLECTIVO PROTEGIDO (2020)



Honako grafiko honetan azaltzen dira krimen mota bakoitzean, tratu txarrak, lesioak, koakzioak eta mehatxuen artean, zeintzuk diren arrazoi bakoitzaren kantitatea, arrazismoa izanez gehiena diferentzia handiarekin.



Eta azkenengoz grafiko honek erakusten digu urte bakoitzean egon diren amorru delituak, urte batzuez egonkor izan direnak, 2019-an beherakada emateko eta gero 2020-an gorakada izugarria emanda.


Esperimentazioa:

Materialak: Forms-a egiteko Ipad-a beharko dugu bakarrik, eta gero klasean, zein gure familiari, lagunei eta abar ipiniko diegu galderei eratzuteko.

Prozedura: Hasteko, forms-a egin behar dugu, denborarekin galderak pentsatuz, gero klasean jarriko dugu qr kodea klasekideek erantzuteko galderei, eta gero gure etxean gure familiakoei eta ahal badugu laguneei ere, ahalik eta laginik hadiena lortzeko gure emaitzak ahalik eta ziurrenak izateko.

Emaitzak: Guztira klasekideekin eta familiakoekin 63 erantzun lortu ditugu formularioan, adin tarte guztietakoak. Hona hemen adin tarte bakoitzak inkestan emandako erantzunak:
Zein da 0-10 urte tartean deserotasun gehien sortzen duen arrazak?


0-10 urte



Lehengo tartean, 0-10 urteetan ehuneko 100-a arraza beltza jarri du.

Zein da 10-20 urte tartean deserotasun gehien sortzen duen arrazak?

10-20 urte




Bigarren tarteetan, 10-20 urteetan, gehienak bat ere ez esan dute, eta gero horrela:

ijitoak>errumaniarrak>beltzaranak>arabiarrak=txinatarrak

Zein da 20-40 urte tarteetan deserotasun gehien sortzen duen arrazak?


20-40 urte



Hirugarren tarteetan, 20-40 urteetan gehienak diferentziarekin arabiarrak jarri dute, gero beltzaranak eta azkenengoz errumaniarrak.

Zein da 40/> urte tarteetan deserotasun gehien sortzen duen arrazak?

40 urtetik gora




Eta azkenengo tarteko emaitzak, 40 urtetik gorakoek berdin-berdinak izan dira guztiak, ehuneko 20-arekin bakoitzak.

Orain inkestaren erantzun orokorren zenbait emaitza gehiago erakutsiko ditugu grafiko bidez:


Arrazaren bat sortzen dizu deserotasuna edo beldurra?

50 respuestas



Arrazakeria zure inguruan ikusi duzu noizbait?


50 respuestas



Hemen ikus dezakegu ehuneko 50a baino gehiago arrazismoa haien inguruan ikusi dutela noizbait.

Zein arraza uste duzu arrazismo gehiago jasartzen duen Bizkaian?


50 respuestas



Ia ehuneko 50a jarri du arraza beltza, beraz oso urrun ez daude, izatez hori benetan arrazakeri gehien jasartzen duen arraza gaur egun.


Hauen artean, zein arrazan duzu lagun edo ezagun gehiago?

50 respuestas



Arabiarrak eta Beltzaranak dira jendeak lagun edo ezagun gehiago dituen arrazak, seguraski Espainiara arraza hauetako etorritako inmigrante kantitate altuagatik.

Uste duzu arraza bakoitzak inpresio desberdina eragiten dutela pertsonetara?
50 respuestas



Ondorioak:

Inkesten emaitzak aztertuz, ikus dezakegu gure hipotesiak ez direla guztiz bete, baina gehienak bai. Lehengo hipotesiari dagokionez, guztiz bete da, 0-10 urte tartekoei arraza beltzaranak sortzen die deserotasuna edota beldurra, 10-20 tartean nahiz eta gehienak batere ez bozkatu duten, azken finean adin tarte horrek arrazakeriari buruz gehien kontzientziatuak daudenak direlako, baina horretaz gain besteen artean gehienak ijitoak eta errumaniarrak izan dira, guk esan genuen bezala. 20-40 urte tartean ere esan genuen bezala diferentzia handiarekin gehienak Arabiarrak dira, berriz ere gure hipotesia egiaztatuz. Eta azkena, 40 urtetik gorakoak justu bozkatu dute erantzun guztiak berdin-berdin, bakoitzak %20arekin, beraz gure hipotesia ez da bete kasu honetan.

Jende gehienak bozkatu du arraza Arabiarrean dutela lagun edo ezagun gehien, Arabiar asko etortzen direlako inmigratuz gure herrialdera. Ere, arraza beltza bozkatu du arrazakeri gehien jasotzen duen arraza bezala. Hori ziurrenik dela historioan zehar arrazismo asko jaso duelako arraza hori, eta fisikoki gurengan desberdinena den arraza da.

Beraz ikus dezakegu nola arrazakeria dagoen azken finean, eta oso aurreikusgarria dena. Konturatu ahal gara ume txikiena ezik, azkenean gauza fisiologiko bat delako, besteak medioetan edo beste tokietan ikusitako estereotipoen erruz lortutako iritziak direla gehien bat, generalizatuz, eta hori azken

finean arrazakeri arazoa da. Guk ez dugu azal zuriko jendeari diskriminatzen haien arrazaren zenbait pertsonak egin dituzten gauza txarreatatik, eta horrekin bezala beste arraza guztiekin ere ez dugu egin behar, arraza bateko pertsonak ez dutelako errua haien arraza berdineko beste batzuek egiten dituzten gauzetatik.

Proiektu honekin kontzientziatu nahi dugu jendeari nahiz eta arrazizta ez izan, eta errespetuarekin tratatuz arraza guztiei, nola arrazakeria oraindik gertatzen dela, guk ezta konturatu barik. Estereotipoei aurre egin nahi dugu eta pertsonen bakarrak epaitu haiek egin dituzten gauzetatik, eta ez bere arraza edo familiak egin dituen gauzetatik.



Webgrafia:

[Grafikoen webgunea](#)

[Delitos de odio](#)

[Arabiarrak eta beltzaranak arrazismoa](#)

AMAIERA